



Azaroaren 30ean, Gazte Eguna, Urnietan

Ospakizunaren xehetasunen berri eman dute Peru Sanchez Larrañaga eta Unai Iraola Uribarrena Poxta Zahar elkarteko kideek / 5

AIURRI



ate
irekiak

HH/LH

HH/LHKO ERAIKINA
ABENDUAREN 14an 11:00etan

DBH

BATXILERGO/DBHKO ERAIKINA
ABENDUAREN 14an 11:00etan

Hitzordua hartu behar da web honetan:
www.urnietakosalesiarrak.com



salestarrak
MAGALE · URNIETA

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

URNIETAKO EMAKUMEAK URNIETA

"Indarkeria matxistaren aurrean, Urnieta elkartu"



Jardunaldia antolatzen aritu den emakume taldeko hainbat kide. URNIETAKO EMAKUMEAK

Azaroaren 25ean, egutegiak gogoratuko digu Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna dela, batzuei behintzat. Seinalaturiko egun hau ez ahaztu arren, itxuraz, agenda gehienetan presente dagoen arren, zer gertatzen da urteko beste egun guztiekin? Zer gertatzen da gure

egunerokotasunarekin? Genero rol inposatuak, kontrola, iranaik, sexu-erasoak, eraiketak. Emakumeonganako zapalkuntza nonahi antzeman dezakegu eta badirudi onartu beharrean gaudela, ez dagoela zer eginik. Egunkarietan etengabeko miseria eta hondamendiak, gizartea geroz

eta isilago. Despolitizazioaren eta asimilazioaren garai honetan, Urnietako emakumeok ez dugu berdin jarraitu nahi.

Nahikoa dela diogu, arrazoi asko ditugula geldirik ez gelditzeko, antolatzeko. Indarkeria matxistari aurre egitea denon ardurua da eta lan handia gelditzen da oraindik. Gure belaunaldiei zein datozen berriei dagokigu errealitateaz arduratzea eta gure esku dagoen hori borrokatzea.

Egitarau honen bueltan elkartu garenek badakigu nola elikatu dugun elkar, eta hasi ginenean baino baldintza hobeetan gaudela gaur, baita indartsuago, eskerrak zuei. Urniertar guztiei luzatzen diegu bertaratzeko gonbidapena. Indarkeria matxistari aurre egin! Gora emakumeon antolakuntza!

INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN, URNIETA ELKARTU!

A23

17:00: ONGI ETORRIA ETA PROIEKZIOA:
"No solo duelen los golpes"
 Ondoren solasaldia: **biolentzia desberdinak identifikatzen**
 (polikiroldegiko 5. gelan)

19:00 KARTELADA BERTSOAK
POEMA IRAKURKETA
 ondoren musika eta luntx-a egongo da.
 (Zubitxo plazan)

Urnietako emakumeak

Larunbat honetako jardunaldiaren egitaraua. URNIETAKO EMAKUMEAK

~SASKI SALMENTA~

XIBEROAKO IKASTOLEN ALDE

PETTARRA

50€

Alaba gibel bertsoak, ezti, bokota artzainak, ardi garta kinoa eta pasta.

ARDAILA

57€

Ertia, bokota artzainak, kiz, esliko bi ardi garta, bokox gatzak, erromanta, pasta eta flaura.

PASABURUA

68€

Xoriki gata, bokota artzainak, Ardi garta kinoa, ashaki zera, lukarika idoma eta pasta.

ESKAERAK EGITEKO:
 Baga:
atxega@buhameak.eus

Biga:
www.ikaskoli.eus

Asko eskertuko dugu kontu korrante bidez ordaintzea:
 ES08 3035 0036 15 0360702619
 Mesedez zuen izena jarri

AZAROAREN 25TRA ARTE

"Pozik nago dendak jaso duen harreragatik"

YUNE MORETA TXIMELETA OIHAL-DENDA

Negozia ireki zuen irailaren 22an, Andoaingo Kale Nagusian. Atea zabalik bi hilabete igaro ostean, Moreta pozik da dendak denbora tarte honetan eduki duen harrerarekin



Yune Moreta, Andoaingo Kale Nagusian ireki duen Tximeleta negozioan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Zer eskaintzen du Tximeleta oihal-dendak?

Oihal-denda eta joskintzarako tresnak saltzen dituen mertzaria izateko ireki dut Tximeleta. Hori izan zen nire hasierako planteamendua, eta dendak berak ematen didan espazio ez oso zabalera egokituz, zerbitzu gehiago eskaintzen ari naiz geroztik. Konponketa txikiei ekin diet, eta etorkizunari begira, eskaintza zabaltzen segitzeko asmoa daukat. Esate batera, badaukat buruan jendearentzat ikastaro eta tailerrak antolatze-gogoia. Horretarako, jada lortu ditut josteko lau makina eta jantzien eta osagarrien barne-josturak lantzeko beharrezkoa den *erremalladora* bat; lehenbailehen nahi nuke tailer horiei heldu. Bestalde, diseinu pertsonaleko salgaiak gehiago lantzeko asmoa daukat; poltsa, motxila eta diru-zorro bakan batzuk baino ez ditut diseinatu oraingoz.

Denborak esango dit gauza naizen ala ez egitasmo guztiakin ondo moldatzeko, izan ere, lan-

egunak agudo batean igarotzen baitira eta dendaren espazioa ere ez baita oso zabala. Baina ilusioz eta kemenez beterik nago. **Ilusioa aipatu duzu. Nola joan zaizkizu dendak irekiz geroztikako egun eta asteak?**

Pozik nago jendeak dendari eman dion harreragatik. Beti-betiko denda da, erakusleho polita dauka, barrua abegikorra da, eta hori gustukoa du jendeak. Esate batera, lehengo batean, Urdax herritik pertsona bat urreratu zitzaidan dendara. Facebooketik eduki zuen dendaren berri, eta aurrez-aurre ikusi nahi zuelako etorri zen; emozio handia eragin zion bisitak. Neu ere agudo batean maitemindu nintzen dendarekin, kanpoko erakuslehoia eta barruko espazioa ikusi orduko.

Denda ireki nuenetik gozatzen ari naizela aitortu behar dut. Jangela bateko langilea izan naiz urtetan, eta erabaki latza izan zen negozioa propioa irekitzeko erronkari heltzea. Bizitzan egin ohi duzun apustu handi horietakoa izan zen, eta gozatzen ari naiz oraingoz, esan

bezala. Ekimena eta negozioa zeurea izateak, zeure esku egoteak asko dauka erronka pertsonaletik, eta ohartu naiz horrek bereziki motiba zaitzake.

Egia esan, funtsezkoa den laguntza ere alde guztietatik jaso dut: lokalaren jabea, Udala, bezeroak, familiak...

Andoainen komertzioak ixteko joera zabaldua dago azken aldian, irekitzekoa baino gehiago.

Hala da, eta tristura ematen du egoera horrek, denok ere ados baikaude herriko komertzioek bizitasuna ematen diotela herriari. Denda irekitzera animatu ninduen negozioaren bideragarritasun azterketak nahiko argi adierazi zidan denek denek premia izaten dugula, katean doala kontua. Alegia, denda zehatz batek erakartzen dituen bezeroak ondoko dendako bezero potentzialak ere izan daitezkeela. Hortaz, dendak dendan lagungarri dira; jende-mugimendua eragiten dute kale edo auzo batean, eta horrek, aldi berean, arnasa eta bizi-poza ematen dio herri bati.



Reme Parra eta Jose Ignacio Garmendia, Andoaingo Kurpil dendan. AIURRI

Laster itxiko ditu atea Kurpil Garmendia dendak

Kaleberriko negozioa 1985ean zabaldu zuten eta jabeek laster hartuko dute erretiroa

Erredakzioa ANDOAIN

Jose Ignacio Garmendia eta Reme Parra Kurpil Garmendian aritu dira, urte luzez. Erretiroa hartzeaz dira, behin denda hustutzea lortzen dutenean. Likidazioan dira, asteotan.

Noiz ireki zenuten Kaleberrian negozioa?

Jose Ignacio Garmendia: 1985ean denda zabaldu genuen, eta urte batzuk beranduago tailerra.

Zure aitak, aspaldian, Eskola kalean zuen bizikleta tailerra. Kaleberriko haren jarraipena izango da, ezta?

J.I.G.: Bai, halaxe da. Han hama-bi urtez aritu nintzen eta, hura ixtearekin batera, Kaleberriko zabaldu genuen.

Dendak ez zuen, hasierako urte haietan, egungoaren antza.

Reme Parra: Ez, dendaren eskaintza zabalagoa zelako. Hurrei eskainitako gunea izan genuen eta, horrez gain, motorrak, bizikletak, arropa...

Urte horietan babesa eman diozue hainbat kirol taldeei.

J.I.G.: Leizaur taldean murgilduta izan gara, esaterako. Eta hura babesten jarraitzen dugu.

Bezero fidelak izan dituzue urte hauetan guztietan.

J.I.G.: Bezero fidelak eta jende jatorrak, gehien-gehienak. Haien-tzat ere denda ixtea galera izango da. Aurrerantzean nora joan erabaki beharko dute, gure jarduna bukatzeaz baita.

Eskerrak emateko aukera baliatu nahi al duzu?

J.I.G.: Bai, bezero jator asko ditugulako. Bezeroa ahalik eta ondoen zaintzea giltzarri dela uste izan dugu beti, eta horri esker lortu dugu fideltasun handiko bezeroak izatea. Izan ere, salmantan fin ibiliz gero, berriro gerturatuko zaigu.

Tokiko merkatalguneekiko zein ikuspegi duzu?

J.I.G.: Panorama txarra da denda txikiontzat. Ikustea besterik ez dago: lokal ugari dago hutsik. Hainbat merkatarik erretiroa hartu dute eta, segidarak ezean, negozioak itxi dira. Zaila da aurrera egitea hedadura handiko merkatalgune handien eta internet bidezko negozioen agerpenarekin.

Ixteko egunean zerbait berezia egiteko asmoa duzue?

J.I.G.: Ez. Egia esan, ixteko gogoz gaude. Likidazioan gaude, eta ezer berezirik egitea ez dugu aurreikusten. Jendeak, honezkerok, badaki ixtera goazela. Eguna ez dugu zehaztuta, salmenten araberakoa izango baita. Pixkanaka, denda hustutzen ari da. Arropa eta osagarriak erdi prezioan ditugu, eta bizikletak ere oso prezio onean dira. Salmenta hori bideratu nahi dugu, ez ditugulako etxera eramanez.

Behin denda hustuta, etxera joango gara. Gogoz, gainera.



UDALA

Saretxoak jarri dituzte

La Salle Berrozpeko erdi mailako Soldadura eta Galdaragintzako ikasleek plastikoa eta tamaina txikiko zaborra ibaira ez botatzeko saretxo metalikoak ipini dituzte herrigunean. Andoaingo Udalarekin hitzarmena sinatu ostean, Kaleberriko zubian eta Santa Krutz eliza ondoko zubian ipini dituzte. Besteak beste, herriko Eguzki talde ekologistaren eskaera zen hori.



AIURRI

Ondarearen katalogazio-lana

Burdina elkarteak Gordeleku izeneko museo etnografikoa ireki du, azken aldian. Egunotan, pieza horiek guztiak zerrendatzeari eta katalogatzeri ekin diote Aranzadi elkarteko kideek eta EHUKo ikasleek. Burdina elkartearen datuen arabera, 1.500 pieza baino daude Gordeleku gunean. Etnografia saileko Maite Errarteren eta Suberri Matelo kideak dira egitasmoak zuzendariak.



Rol-jokoak, asteburu honetan, Andoainean

Enderren Jokoa elkarteak antolatuta, GT Andoain taldekako lehiaketa jokatu da asteburuan



Gonzalo eta Lasa, argazkian. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Rol-jokoan munduan aski eza-guna den Warhammer lehiaketa izango da asteburu osoan Arrate pilotalekuan jokoa jarri dena. Etorkizun distopiko batean girotutako gerra-jokoa da, mundu fantastikoa eta zientzia fikzioa uztartzen dituen mahai-jokoa, hain zuzen. Antolatzaileek ziurtatu dutenez, Gipuzkoan eta Nafarroan ospatzen diren lehiaketen artean, handiena da Arrate pilotalekuan egingo dena. Guztira, 120 parte-hartzaile espero dira asteburu osoan.

Bi eguneko egitaraua Azaroak 23, larunbata

08:00-08:15 Harrera.
08:30-08:45 Parekatzeak.
08:45-11:45 Lehen txanda.
12:00-12:15 Parekatzeak.
12:15-15:15 Bigarren txanda.
15:15-16:45 Bazkaria.
17:00-17:15 Kanporaketak.
17:15-20:15 Hirugarren txanda.

Azaroak 24, igandea

08:00-08:15 Harrera.
08:30-08:45 Parekatzeak.
08:45-11:45 Lehen txanda.
12:00-12:15 Parekatzeak.
12:15-15:15 Bigarren txanda.
15:15 Sari banaketa, zozketak eta agurra.



Denera, 80 ukondo, 150 garagardo litro eta 250 saltxitxa kontsumitu ziren. ETENETA

Jendetza erakarri zuen Etenetak antolaturiko Garagardo Azokak

Hirurehun lagun hurbildu ziren, antolatzaileek emandako datuen arabera

Erredakzioa URNIETA

Janaren eta edanaren bueltan antolatzen diren ekitaldiak ez dira gutxi inguruotan. Baina Garagardo Azoka ez da hain ohikoa, eta Etenetak aurreko asteburuan antolatu zuena arrakasta itzela lortu zuen. Honatx, kontsumo osoari dagokionez, antolatzaileek helarazitako datuak: 80 ukondo, 150 garagardo

litro eta 250 saltxitxa. 300 lagun pasatxo hurbildu ziren, larunbat eguerdian hasita. Gauzak horrela, azoka bikain ateratu zen. Eki-menarekin errepikatze asmoa dute, eta, dagoeneko, badakite jende askotxorentzat zerbiztua eskaini beharko dutela. Lana gogotik egingo zuten sustatzaileek, baina, erantzuna ikusita, lanean pozik aritzeko motiborik bazuten.



300 lagun pasatxo hurbildu ziren elkartearen, larunbat eguerdian hasita. ETENETA

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Udazkenean ere kaleak hartze-ko gogoz da Poxta Zahar: Gazte Eguna antolatu du azaroaren 30ean, gaueko ordu txikietara arte luzatzen den egun osoko egitarauarekin. Bertako kide dira Peru Sanchez Larrañaga eta Unai Iraola Uribarrena.

Gazte Eguna ospatuko duzue hilaren azken larunbatean. Proposamen berria da, Poxta Zaharren ohiko urteko agendan. Zer moduz doaz prestaketa-lanak?

Unai Iraola Uribarrena: Nahiko hila-bete tristea da azaroa. Zerbait jarri nahi genuen, hortaz, Sanmielestatik Gabonetara ezpaitugu, bestela, ezer antolatzen. Zubirik gabeko asteburua nahi genuen, eta azaroaren 30a buruan, prestaketarekin hasi ginen.

Peru Sanchez Larrañaga: Poxta Zaharren urteurrena antolatzearen pareko da. Azkenean, egitarauari begiratuta, ez da gehiegi ateratzen normalean egiten dugunetik. Beraz, nahiko erraza izan da antolaketa. Eguna zehaztea izan zen pixka bat konplexuagoa, baina, bestela, nahiko ondo.

U.I.: Urriaren bigarren hamabostaldian hasi ginen prestakuntzan, eta azaro hasiera, jada, gainean geneukan, berandu zen, ezer lotzeko. Era berean, abenduaren hasieran zubia izanda, kanpora joan ohi da jendea. Hortaz, azaroak 30.

Sanmielak aipatu dituzue. Indarrak berreskuratuta, jada? Ia bi hilabete pasa diren honetan, zein balorazio egiten duzue?

P.S.: Nahiko balorazio positiboa egin delakoan naiz, nahiz eta beti dagoen zer hobetu. Egia da, pixka bat ezustean harrapatu gintuela, azken bi urteetan egin dugun bezala, oraingoan, jaiak asteazkenetik hasi ezin ahal izateak. Bestalde, gu ere ez gara Jai Batzordeko bileretara joan, eta talde horrekin antolatutako zerbait da, festen hasiera San Miel egunaren arabera zehazten dute eta. Ea hurrengo urteari begira beste zerbait adosterik dugun.

Bestela, erantzun ona jaso genuen festetan: jende pila animatu zen, txosnako txandak arazorik gabe bete genituen, kamisetak arrakasta izan zuen, kontzertuetan herriko jende asko zebilen...

Gazte Eguna izango da hilaren 30ekoa. Gaztetasuna, ordea, subjektiboa omen...

“Herriko jendea elkartzeari nahi dugu”

PERU SANCHEZ LARRAÑAGA ETA UNAI IRAOLA URIBARRENA POXTA ZAHAR

Datorren azaroaren 30ean Gazte Eguna antolatuko dute Urnietan. Salgai daude, jada, herri bazkariko txartelak, Frontoi tabernan, hilaren 24ra bitarte



Gazte Eguna antolatzen dabil Poxta Zahar. Bertako kide dira Peru Sanchez Larrañaga eta Unai Iraola Uribarrena. AIURRI

U.I.: Urnietan, orokorrean, ez dago giro handirik eta jendea elkartzeari nahi dugu. Herritar guztiei dago irekita.

Zenbat kide zaudete eguna antolatzen?

U.I.: Hamar kide baino gutxiago gaude gaur egun.

P.S.: Egia da egun honek, zehazki, ez duela lan handirik eskatzen, hitzorduak adostu eta jendearekin hitz egitea delako. Baina,

bai, jendez eta ideiaz justu samar gabiltza. Geroz eta jende gehiago, orduan eta ideia gehiago.

U.I.: Egunean bertan, laguntzailak beharko ditugu, gaudenon artean ezingo baikenuke.

Jendea kostatzen zaio laguntza ematea horrelakoetan?

U.I.: Egunean bertan, nire ustez, ez. Beste gauza bat da Poxta Zaharreko dinamikan sartzea eta bileretara joatea, urte osoan baikaude martxan.

P.S.: Ideia berriak sortzeko gogoz gaude.

U.I.: Eta gu baino jende gazteagoa sartzeko gogoz ere bai, 20 urte azpiko inor ez baitago.

P.S.: Belaunaldien arteko harremana zertxobait galdu egin da, beharbada, ez dugulako non elkartu, garai batean, Xauxar tabernan egiten zen bezala. Kide berriak agertu izan dira bilera irekietara, baina zaila da horri jarraikortasuna ematea.

Begirada bi asteburu barru ipin gero, zer egongo da herrian?

U.I.: Poteoarekin hasiko dugu eguna, herriko trikitilariarekin, Frontoi tabernatik abiatuta.

P.S.: Ondoren, herri bazkaria egingo dugu. Apur bat ezberdina izango da eskaintza, udazkenean sartuta gaudela ikusita: babarrunak, haragi erregosia eta natillak. Menu vegetarianoa ere egongo da: babarrunak, pistoa eta mazedonia. Frontoi tabernan daude salgai tiketak, hilaren 24ra arte. Berrikuntza moduan, zupia jasoko dute bazkaria bertaratzen direnek. Mozkor-jolasak antolatu ditugu, gero, Lasko txaranga hasi aurretik.

U.I.: Tolosako gazte batzuk dira, eta orain bi urte hasi ziren jotzen. Gauean, DJ Revu egongo da; Sanmieletan ere jo zuen.

Gabonak ate joka diren honetan, ba al duzue zerbait buruan?

P.S.: Gabonetan ere jendea herrian gelditzea nahi dugu. Abenduaren 24a oso egun polita izaten da, eta oraindik ezer zehaztuta ez dugun arren, txaranga bat, elektrotzaranga bat-edo jartzea pentsatu dugu.

U.I.: Beste urte batzuetan bezala, San Silbestrea antolatzeko asmoz ere bagabiltza, urteko azken egunari begira.

Zer esango zenikete Poxta Zaharrerako sartzeko gogoz dabilenari?

U.I.: Gurekin harremanetan jartzeko. Eta, beldurrik ez izan, askotariko adineko jendea behar dugu taldean, ideia berriak izateko!



Jon Sarasua. GOIENA

“Eskualdeko eskalan, lidergoa hartzeko aukera dauka euskarak”

JON SARASUA MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA HUHEZI FAKULTATEAN Euskararen Gogoetagunea Euskaltzaindiako lantaldearen koordinatzailea da. Aurtengo TOKIKOM sarietan, hedabideak hizpide, hitzaldia emango du

TOKIKOM KOMUNITATEA

Duela hiru urte Euskaltzaindiaren babespean martxan jarri zuten Euskararen Gogoetaguneak egitasmoaren koordinatzailea da Jon Sarasua (Aretxabaleta,

Gipuzkoa, 1966), eta egiten ari diren lanketaz eta lanketa horretan hedabideei aitortzen dieten paperaz hitz egingo du, ostiral honetan, TOKIKOM sarietan 8. edizioko ekitaldian. Aurrerapena, Aiurri astekarian.

Euskararen inguruan lasai hausnartzeko sortu zenuten, Euskaltzaindiaren babesean, Euskararen Gogoetaguneak egitasmoa. Nondik gatozen ikusi, non gauden jakin, nora joan nahi dugun erabakitzeke. Noraezean genbiltzen ala?

Nik uste noraeza esatea gehitxo esatea dela. 60 urte iraun dituen prozesu batetik gatoz, bidean estrategia sorta zabala garatuta, eta gaur egun, momentu delikatu samarrean aurkitzen gara. Estrategia horiek, neurri batean, fruituak eman dituzte eta ematen segitzen dute, baina, aldi berean, zoru konplikatu dugu oinpean, lehendik ere zaila zen egoerari azken mende honetan faktore negatibo berriak erantsi zaizkiolako. Beraz, euskararen komunitate bezala norabideak birpentsatu beharrean gaude, bisio bat ekoitzi behar dugu, hemendik hamarraldi batzuetara, 25 urtera, zer nahi dugun eta non egon nahi dugun zehazteko, eta horretarako lan ildo nagusiak nondik martxan jarri behar diren erabaki behar dugu. **Egunerokoaren zurrunbilatik alden-du eta patxadaz hausnartzen ari zarete, beraz.**

Euskalgintzak eta euskararen prozesuak adar, eratze eta erakunde mordo bat sortu dituzte, eta hori ona da, bakoitzak berea zaindu behar baitu. Baina oso epe laburrera begira ari gara, eta plan estrategikoak egiten oso onak garen arren, estrategia horiek ez badute epe luzeagoko etorkizun ikuspegi bat, motz gelditzen dira, eta hori gertatzen ari zaigu. Plan estrategiko terminoetan gabilta denok, baina bisioa falta zaigu, etorkizunera ikuspegi luzeagoa, zer gertatzen ari dela uste dugun eta horren arabera non egon nahi dugun zehaztea, zer den desiragarria eta aldi berean posible ikustea. Ariketa hori ahulduta eta lausota daukagu, eta, hain zuzen, zerbitzu hori egin nahian abiatu genuen prozesu kolektibo bat orain dela hiru urte.

Euskara, bere txikian, esparru askotara iristen da, jende askorengana, iritzi eta ikuspegi askotako jendearengana. Euskararen Gogoetaguneetan hala elkartu al zarete? Metodologia jakin bat daukan prozesu bat gauzatzen ari gara, eta ponentzien bidez funtzionatzen du. Ponentziak ekoiztera konbokatzen dugu jendea, eta gero kontraste prozesu bat egoten da. Kontraste talde espezi-fikoa daukagu, eta ponentzia bakoitza talde horrekin kontrastatzen da, eta horretaz aparte, dagokion sektoreko jendearekin ere bai. Horren guztiaren lehen baldintza da prozesu guztia gauzatzea sektore desberdinetako,

ikuspuntuko desberdinetako eta euskararen lurralde osoko jendearekin.

Aurtengo uztailean argitaratu duzue orain arteko lanketatik sortutako lehen argitalpena. Bi zati ditu argitalpen horrek: batetik, euskararen egoera jasotzen du; eta bestetik, etorkizunera begirako ikuspegia.

Ponentzia bat Jon Aizpuru Eusko Jaurlaritzako teknikariak eta Olatz Altuna Soziolinguistika Klusterreko teknikariak egin dute, eta haiei eskatu geniena zen, horrenbeste daturen eta diagnostikoren artean, nola gauden jakiteko laburpen bat egiteko. Bestea, erdiguneko ponentzia deitzen dioguna da, datozen 25 urteotan euskararen prozesua izango denaren ponentzia orokorra edo bisio artikulatua.

Nola dago euskalgintza?

Meritu handiko etapa bat egin da gaude, azken 60 urteotan aldapa neketsu bat igo duen komunitate bat gara, eta gaude igoera neketsuen ostean askotan egoten garen bezala: neurri batean nekatuta, beste neurri batean aurrera segitzeko gogoz, beste neurri batean noraez puntu batekin laino apur bat sartu delako eta une delikatu batean. Gure jarrera ez da alde batera edo bestera jotzea, pesimismo-rantz edo optimismorantz egitea, baina nik uste, analisi horretan, optimismo kritikoa batetik abiatu eta pesimismo aktibo batera bitarteko tarte horretan, jende asko kabitzen dela, beti ere pesimismoa aktiboa den bitartean eta optimismoa kritikoa den bitartean. Iruditzen zait orkila edo tarte horretan ibili beharko genukeela eta hor kokatzen dela gure ahalegina.

Eta norantz jo behar da?

Orain arte egindakoaz egin ditzaie irakurketa edo balorazio desberdinak, baina uste dut badela gauza bat denok bat egin dezakeguna, eta honakoa da: egindakoaren berdina egiten jarraituz ez dugula aurrera egingo. Ez orain arte egindakoa gaizki egin dugulako, desafio berri oso lodiak ditugulako baidak. Orain arte egin ez ditugun gauza asko egin beharko ditugu,

"AZKEN 60 URTEOTAN ALDAPA NEKETSU BAT IGO DUEN KOMUNITATE BAT GARA"

bideak berritu egin beharko ditugu, eta uste dut hori badela kontsentsu puntu oso oinarriko eta inportante bat. Eta hortik aurrera zer? Laburtzeak ere luze joko luke, baina, alde batetik, euskararen gizarte politikarako ardatz sistema desberdin bat planteatzen da, orain arte funtzionatu duenaz gainera eta hori errespetatuz; eta bestetik, komunitateari begira, beste estrategia batzuk, herrigintza eta euskalgintza mugimendu dimentsioa aktibatzen. Bi beso horietara begiratzen dugu, eta horien ganean antolatu dugu gure etorkizun ikuspegia.

Gizarte politikei dagokienez, jauziak eta pausoak planteatu dituzue.

Jauziak eskala handiko operazioak dira, eta pausoak, orain arteko bidean aurreratzeak. Lehentasunezko lau jauzi arlo handi identifikatu ditugu: lan eremua, aisialdi antolatua, hezkuntza eta hedabideak. Pausoak, berriz, sei arlotarako planteatu ditugu: kulturgintzan, teknologian, migrazioaren harrera linguistikoa eta abar.

Hedabideen arloan egin beharreko jauzi horretan sakontzerik bai?

Hasteko, orain arte egindakoaren ahalegina eta meritua aitortu behar zaizkie hedabideei, eta nabarmenduko nuke egindako hori zaintzeak duen balioa. Hedabideen arloan ez dugu planteatzen estrategia bakar bat, baizik eta hainbat estrategia daude. Horietako bat da euskal hedabideen sistemaren barruko sinergia eta komunikazio kanal berriak sortzearen ingurukoa; beste bat da, bertako eta munduko fikzioa euskaraz jasotzearen ingurukoa... Eta horien guztien artean bada bat bereziki Tokikom ukitzen duena; hain zuzen ere, guk EHM estrategia deitu dioguna, alegia, Eskualdeetako Hedabide Multimedien estrategia. Hori izan daiteke hedabideen arloan planteatzen den berrikuntza eta jauzi nagusietako bat, baina ez bakarria.

Zeintzuk izango lirarteke estrategia horren ardatzak?

Ikusten duguna da euskarak beste esparru eta eskala gehie-

netan desbantaia handiak dituen bezala, eta minoria txiki samarra izatera deitua dagoen bezala, eskualdeko eskalan lidergoa hartzeko aukera daukala. Eskualde askotan lidergoa, lidergo garbia; eta beste eskualde batzuetan, presentzia esanguratsua. Hortaz, eskala nazionala abandonatu gabe eta hori ere indartuz eta sinergiak sortuz, estrategia honek proposatzen duena da eskualdeetan inpaktu handiko multimedia taldeak sortzea, telebista, irratia, Internet –sare sozialetara loturarekin– eta papera batuta. Adibide gisa Goiena aipatu genezake. Goiena Debagoienean liderra da, haren audientzia inpaktuak oso handiak eta egonkorak dira, eta lortzen du eskualde ez bereziki euskaldun batean eskualdeko komunikazio liderra euskarazko multimedia talde bat izatea. Iruditzen zaigu tokian tokira egokituta, formula hori Euskal Herriko eskualde gehienetan zabal dezakegula pausoz pauso, eta horrek eskatzen duela apustu politiko bat.

Ea foru aldundiek eta Jaurlaritzak entzuten dizuten...

Estrategia horren oinarrian ezin du egon udal baten edo diputazio baten borondateak bakarrik; eskatuko du atzean egotea alderdi politikoa nagusiak, eta estrategia hori nagusietako bat bezala onartzea. Horrez gain, talde multimedia horiek erabat eskualdeko indar publiko eta sozialetan oinarritutako gobernantza ereduak izan behar dutela uste dugu, baita lerro editorial zeharkatzailea ere, ideologikoki zein politikoki, orain arte dutena baino gehiago.

Tokikom sarien ekitaldiak emango dituzu estrategia horren inguruko xehetasun gehiago?

Bai, TOKIKOMek eskatu digu, eta guretzat kontrastatzea inportantea denez, horretarako baliatuko dugu aukera. Laster argitaratu ere egingo dugu. Dagoeneko bi ponentzia argitaratu ditugu, baina beste hamar bat ere badatoz, eta horietako bat hedabideei buruzkoa izango da.

Hor azalduko da xehekiago eskualdeetako hedabide multimedien estrategia hori, hedabidegintzaren inguruko beste estrategiekin batera. Zehazki noiz argitaratuko dugun ez dakigu, baina negu-udaberri aldera izango dela espero dugu.



TOKIKOM jardunaldiak, 2023an. TOKIKOM

TOKIKOM Sariak, ostiral honetan

TOKIKOMek, Toki Komunikabideen Bateraguneak, TOKIKOM Sariak banatuko ditu Artikan (Nafarroa) ostiral honetan. Sariak antolatzen, TOKIKOMek Nafarroako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien eta Laboral Kutxaren laguntza jaso du.

Ekitaldia kafe eta mokadutxo batekin hasiko da, eta, jarraian, TOKIKOM SARIAK banatuko dira, toki komunikabideetan azken urtean sortutako azalik onena, edukirik onena eta ikus-entzunezko onena ere nabarmentzeko. Sariak banatzeaz gain, TOKIKOMek aukera aprobetxatu nahi izan du sektorearen erronken gaineko gogoetak eta eskarmentua partekatzen. Horretarako, hiru ponentzia mamitsu antolatu ditu, erronka horien artean kokatzen diren hiru gai nagusienetako gainean: euskararen beraren etorkizuna, lanen eta baliabideen antolakuntza hobetu beharra, eta hedabideei buruzko komunitategintza. Horretarako, izen handiko gonbidatuak ekarriko ditu, hurrenez hurren:

HUHEZIKO Jon Sarasuak Euskararen Gogoetagineak egindako lanketaz, eta lanketa horretan hedabideei aitortzen dien paperaz jardungo du.

AEK euskaltegien ereduak

AEK-ko Lurdes Etzezarretak eta Xabi Gartzia, berriz, AEK-k azken urteotan barne integrazioaren eta antolaketa alorrean egiten diharduen prozesuaren berri emango dute, toki komunikabideentzat interesgarria izan daitekeelakoan. *Gauzak berdin egiten jarraitzea ez da aukera bat* izenburupean egingo dute solasaldia. AEK-ko Lurdes Etzezarreta izango da hizlarietakoa eta honako hauxe bere hausnarketa: "Hasieratik, etengabeko eraldaketan aritu izan gara, garaian garaiko testuinguruari egokitzuz, edozein arlotan, eta, horretarako, sekulako gaitasuna erakutsi dugu. Gaitasuna izan dugu baldintza politikoak eta barne gaitasunak aprobetxatzeko, eta misioari aurrera egiteko. Aldaketek erresistentziak sortzen dituzte, eta aldaketa horiek handiak direnean eraldaketa prozesu bezala irudikatu behar dira. Izan ere, bidean, akatsak agertuko dira, eta hobekuntzak ere egin beharko dira; pazientzia beharrezkoa izango da xehetasun guztiak doitu bitartean. Alegia, gauzak modu berean egiten jarraitzea ez da aukera bat. Albert Einsteinen hitzak erabilia: "Gauzak ez dira sekula aldatzen dien paperaz jardungo du."

EIDiario.es-en ereduak

Azkenik, EIDiario.es-eko fidelizazio arduradun Ramon Argelinak haien kidetza eta fidelizazio estrategiaz hitz egingo du. Hedabide digitala da eta bazkideek garrantzi handia dute, haien finantzazio-iturri nagusi baitira. Honatx, Argelinak hitzaldiaren aurretik TOKIKOMi aurreratu diona: "Bazkideak dira protagonista, proiektuaren erdigunean daude. Botere politikoaren, enpresarialaren eta ekonomikoaren presioen aurrean independentzia editoriala blindatu egiten dute horiek. Modu horretan bakarrik argitara dezakegu batzuek jakin nahi ez dutena. Harpidetza ordaintzeagatik abantaila eskusibo batzuk izateaz gain – eduki osoa eskuratzea, eguneroko azala beste inork baino lehenago irakurri ahal izatea, buletin eksklusiboak jasotzea edo ekitaldietara gonbidatzea–, eIDiario.es-en estatutuetan jasotako eskubideak ere badituzte".

2012an jaio zen eIDiario.es, eta ordutik etengabe hazi da; gaur egun estatu osoko 95.000 bazkide ditu. Hazkunde hori esponenziala izan da une jakin batzuetan; hori lortu da garrantzi handiko ikerketa handien eta eksklusiboen argitalpenari esker.

**"EUSKARAK
ESKUALDEKO
ESKALAN LIDERGOA
HARTZEKO AUKERA
DAUKA"**



Lizar Makil taldea, Etxeberrietan, San Inazio egunean 1966an. Zutik: Jose Antonio Zalakain (txistularia), Pello Elola, Juantxo Urrutia, Ramon Beraza, Jesus Mari Irueta, Bixente Olano (erakuslea), Luis Mari Beraza, Eugenio Usarralde, Jose Mari Aiertza, Juantxo Arregi, Josetxo Orbegozo eta Iñaki Arin (txistularia). Eserita: Toñi Garcia, Josepi Rodriguez, Maitte Garmendia, Arantxa Txopeitia, Oizartzabal, Izaskun Astigarraga, Josebe Zinkunegi, Arantxa Garmendia, Bittori Sarasibar eta Marisol Elola. ARTXIBOA

Euskara ardatz duen jaialdia, Basteron

"Andoingo euskera, bihotzetik kalera" ekinaldiak mugarri berria ezarriko du Bastero Kulturgunean, datorren abenduaren 5ean antolatu duen jaialdian. Belaunaldiz belaunaldi, euskarak eta euskal kulturak izandako garapena ikusgai izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna ekimen betean da, irailean jendaurrean aurkeztu zuen "Andoingo euskera, bihotzetik kalera" egitasmoaren bitartez. Sorburua ezaguna da: egoitza berria eskuratu nahi da Andoingo herrigunean, eta, horretarako, diru-bilketa kanpainari ekin diote. Azaroaren 9an Gastronomia eta Artisanu Azoka antolatu zuen, arrakasta handiz. Jendetza hurbildu zen Goikoplazara, bertan zegoen eskaintzaz gozatzera. Abenduan sartzera goaz eta Larramendi Bazkunekoek prest dute ekimen berria: euskara ardatz izango duen jaialdia.

Abenduaren 5ean Bastero Kulturgunean

Kulturak eta, bereziki, musikak tarte berezi hartuko du Bastero jaialdian. Belaunaldiz belaunaldi, euskararen eta euskal kulturaren alde lanean aritu diren norbanakoak eta taldeak gogoan hartzeko jaialdia izango da. Dagoeneko iragarri daitezke oholtzara igoko diren hainbat izenak. Denboran atzera eginez, "euskara putzu sakon eta ilun bat zen" abesten genueneko, euskalduntasunari tinko eutsi zioten Lizar Makil dantza taldeko kideek, Iñaki Eizmendi sortzaileak, Ramon Beraza kantariak eta Begoña Tolaretxipi musika-irakasleak. Bada, horiek guztiak abenduaren 5ean Bastero auditorioan berriro ikus-

teko aukera izango da. Orduko garai zail hura bizi zutenek, beraz, iragana biziberritzeko aukera izango dute. Eta, bestalde, garai hura ezagutu ez zutenentzat aukera bakana eta paregabea.

Lizar Makil dantza-taldearen itzulera

Bastero Kulturguneko jaialdian iragan loriatsua izan zuen Lizar Makil taldea berriro ikusteko aukera izango da. 60 eta 70 hamarkadatan euskal dantzak zabaldu zituen Andoingo taldea izan zen. Herriko hainbat neska-mutil plazaz plaza aritu ziren dantzan eta beren meritua da Andoainen eta Adunan Axerri-dantza berreskuratu izana. 1975ean Adunan biziberritu zuten, eta, urte bat beranduago, Andoainen.

Datorren abenduaren 5eko jaialdian Andoingo eragile gehiagok parte hartuko dute. Besteak beste, Olagain Andoingo Udal Txistulari Elkarteak, Urki dantza taldea, Alberto Agirre abesbatza, Maizorri txalaparta taldea, Eneritz Jauregi trikitilaria, Mujika-Tolaretxipi familia eta gehiago.

Ekitaldia ikusteko sarrerak salgai jarriko dituzte, 10 euroko prezioan, Elizondo tabernan eta Delgado liburu-dendan. Jaialdia iluntzeko 19:30ean hasiko da.

Larramendi Bazkunaren asmoa argia da: "Bete dezagun Bastero auditorioa!".

ZOKKETA

JAIALDIA

Abenduak 5, osteguna
19:30. Bastero, Andoain

Andoingo harpidedunen artean
2 sarrera zozkatuko ditugu.

Parte hartzeko modua:
Idatzi "Bazkuna", zure izen-abizenak eta bidali:
* Whatsapp: 619 163 537
* E-posta: diseinua@aiurri.eus

Irabazlearen berri datorren Aurrerik astelehenen emango dugu

ANDOINGO
EUSKERA,
BIHOTZETIK
KALERA

Abenduak 5, osteguna
19:30. Bastero, Andoain

"Guk ez diogu besteren izkuntzarik galdu nai, bañan gure utzi digutela. Zer dauka euskerak, lepra? Munduan den izkuntzarik zaírenetakoa dek gurea, orain arte iraun dik, eta guk galtzen utzi bear al' diogu? Gure aitonen españetako itzak guk galdu? Ba'zakiogu, oraingo itz-eremintak erabiltzen ez ba' ditugu (radio, zine, telebisio ta gañerakoak) galduko dala. Oregatik ari gaituk lanean, beste izkuntzei bezela guriari ere bide oiek emateko"

Martin Ugalde

ANDOAINO EUSKERA, BIHOTZETIK KALERA!

BASTERON

jaialdia

ABENDUAK 5 - 19:30



ANDOAINO
EUSKERA,
BIHOTZETIK
KALERA

**Bete dezagun
Basteroko
auditorioa!**

Antolatzailea:



Babesleak:



Sarrerak salgai:
Elizondo taberna eta
Delgado liburudenda

Olagain Udal txistulari elkarte / Urki Dantza Taldea / Begoña Tolaretxipi /
Rebeka Gestoso & Susana Cencillo / Ramon Beraza / Lizar Makil dantza taldea /
Iñaki Eizmendi / Alberto Agirre abesbatza / Maizorri / Eneritz Jauregi /
Iratxo taldea / Mujika-Tolaretxipi familia, eta gehiago...

10€



Leyçaur argitalpen berriena dagoeneko salgai dago. Aurreko astean egin zuten aurkezpen ekitaldia, Bastero Kulturgunean. AIURRI

Andoaingo iragana, aztergai

Indarkeria antzinako erregimenean (Iosu Etxezarraga), XX. mendeko emakume euskaltzaleak eta euskararen transmisioa (Garbiñe Agirre), Martin Ugalderen gutunak (Jon Unanue) eta Frankismoa 1971-1975ean (Peio Urrutia) dira liburuaren ikergaiak

Xabier Lasa ANDOAIN

Leyçaur ikerketa historikoan aldizkariaren berriena argitara eman du Udal Artxiboak. Andoni Alvarez alkateak eta Marta Trutxuelo Udal Artxiboko teknikariak bideratu zuten, aurreko astean, argitalpenaren aurkezpena. Aldizkaria hastapenetik babestu duen Kutxa Fundazioari eta bere ordezkari Mikel Insaustiri eskerrak eman zizkien alkateak, "Leyçaur bezalako ekimenak ezingo bailirateke aurrera eramaterik izango, Kutxak ematen digun laguntza ekonomikorik eta babesik gabe".

Alvarezek, bestalde, ekimena goraiatu zuen, "ez baitu ibilbide makala egin, 1990ean lehen alea argitaratu zuenetik. Andoaingo intereseko gaiak bildu ditu, aiez ale, askotarikoak, gure herria eta bertako biztanleak protagonista bilakatuz".

Marta Trutxuelok eskerrak eman zizkien mahaikide zituen lau historialarieri egindako lan txukun eta interesgarriengatik. Aldi berean, deia egin zien historiagileei, bereziki Andoaingoei: "Animatu nahi ditugu gure herriko historia ikertzera. Artxi-boaren ateak irekita dauzkazue".

Leyçaur aldizkariako lau ikerlanak

- **"Urak gainezka egiten duenean. Indarkeria interpersonala Andoain-en Antzinako Erregimenean"**. Egilea: Iosu Etxezarraga Ortuondo. Aztergaia: Gatazka eta biolentzia kasuak aztertu ditu Etxezarragak, Andoaingo errenazimenduan.
- **"Euskararen transmisioa Andoain XX. mendean. Hainbat emakume euskaldunen bizipenak eta ikuspuntuak"**. Egilea: Garbiñe Agirre Azpiazu. Aztergaia: Garai

desberdinetako 44 emakume-
ren testigantzak bildu ditu Agirrek, artxiboko agiriekin batera. Emakume horiek zein hezkuntza eta bizipenak izan zituzten haur, gazte eta heldu garaian, eta etxetik kanpo, euskararen transmisioan egin zuten lanketa kontatzen du ikerketa lanean.

- **"Martin Ugalde eta Andoain. Sorterriko korapiloak"**. Egilea: Jon Unanue Lopez. Aztergaia: Gerraostean Andoain eta batik bat Venezuelako erbestealdian Martin Ugaldek bere herrikide, adiskide eta familia kideekin izandako gutun-trukaketa du aztergai Unanuek.
- **"Miercoles jueves y vietnamitas (Andoain 1971-1975)"**. Egilea: Peio Urrutia Ochoa. Aztergaia: XX. mendeko 70. hamarkadaren lehen erdiko Andoain aztertu du Urrutiak.

Leyçaur 17 aldizkariako egileak



Iosu Etxezarraga. AIURRI



Garbiñe Agirre. AIURRI



Jon Unanue. AIURRI



Peio Urrutia. AIURRI

Ansak eta Juaneneak ez dute hain erraz etsiko

Binakako Erremonte Txapelketan sailkatzeko aukerak dauden bitartean borrokari eutsi nahi dio bikoteak



Imanol Ansa urnietarra. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Aurreko asteburuan garrantzi handiko partida irabazi zuten eta asteburu honetan sailkapenean gora egiteko aukera berria izango dute. Izan ere, Ezkurra-Azpiroz aurka ariko dira la-

rumbatean. Galarretako jaialdia arratsaldeko 16:30ean hasiko da.

Ansak eta Juaneneak vs. Urriza-Larrañaga

Amaieratik hasita: 2-1 nagusitu ziren, 14-15, 15-12 eta 8-7ko par-

tzialekin. Emaizta aipatuta, partida ikusgarria izan zela azpimarratu beharra dago. Oriamendik horrela jaso du bere kronikan: "Partida ikusgarria eta ederra izan zen. Lau erre-montistak bikain aritu ziren. Lehen seta ezin zirraragarriagoa izan zen, berdintasun handikoa. Ansa eta Juanenea 14-10 aurreratu ziren, baina Urrizak eta Larrañagak markagailuari buelta eman eta 14-15 irabazi zuten. Bigarren setean Ansa eta Juanenea ez zeuden aurkariari opariak egiteko prest, eta 15-12 irabazi zuten.

Azken eta hirugarren Set erabakigarrian Urriza eta Larrañaga 0-5 aurreratu ziren, eta orduan txapelketako tanto politenetako batzuk ikusi ziren. Tanto ederrak egin arren, ez ziren nahikoa izan. Ansak eta Juaneneak zarpina berdindu eta, azkenerako, 8-7ko irabazi zuten. Seta eta partida".

Sailkapena

1. Segurola-Barrenetxea IV 9
2. Urriza-Larrañaga 9
3. Ezkurra II-Azpiroz 7
4. Ansa II-Juanenea 2



Nerea Arruti. KRONIKA

Arrutik 43:38 denboran ebaki zuen kanakoa

Lorpena horrela jaso zuen Kronikak: "Arrutirena ez zen erronka makala. Punta puntako aizkolaria da urnietarra, eta marka polita utzi du kanako enborrarekin, etor daitezkeen erronketarako abiapuntu modura. Arrutik 43 minutu eta 38 segundu behar izan zituen enborra ebakitzeko, eta nahi bezain gustura ez aritu arren, pozik amaitu zuen saioa".



Ganbarako neskak, artxiboko irudian.

Luberri garaitu ostean, Goierri taldearen zain dira

Ganbara Saski Taldeko kadete mailako neskak Plastigaur ize-narekin ari dira jokatzeko denboraldi honetan. Partaidetzazko ligako bosgarren jardunaldia eta gero, sailkapenean hirugarren postuan dira. Bostetik hiru partida irabazi dituzte, azkena Luberriren kantxan (12-43). Asteburu honetan Goierriren aurka ariko dira, Allurralden. Larunbatean, 10:30ean hasita.

Indarkeria matxista ukatzea haren alde egitea da

Batu gaitzen geldiarazteko

2023. urtean, 6.513 salaketa jaso ziren Euskadin emakumeen aurkako indarkeriatatik.

azaroak **25** Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

900 840 111 24 h
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Passang Temba sherpak euskaldunen gailurra igo zuen Saroben

Amaia Agirreren omenezko zine emanaldien bigarren ekitaldia luze gogoratuko da Passang Temba sherparen bisitagatik, eta Sarobera bertaratutakoek egin zioten harrera beroagatik. 1980an Euskal Espedizioarekin Everest-eko gailurra iristea lortu zuen Tembak, Martin Zabaleta hernaniarra lagun zuela, baina Temba bera izan zen Euskal Herrian ikur bilakatu zena, bere argazkia zabaldu baitzen lau haizetara 8.848 metrora, ikurrina eusten. Azken hilabete parean Euskal Herrian ibili da Temba, egun haiek gogoratzen. Pasa den astean egin zuen geltokia Urnietan, eta aste honetan Andoainen.

Txalo zaparrada handi eta sentituarekin egin zioten harrera herritarrek Saroben. Temba herriko Joxerramon Jauregi eta Patxi Irastorza mendizale beteteranoak lagunduta sartu zen aretora, batek ikurrina eta besteak pioleta eskuetan zutela. 176 lagun bertaratu ziren Sarobera, tartean Lasarte-Oria, Hernani eta Donostiako lagun dezente. Aurkezpenaren ostean, 'Agur Everest' pelikularen irudiak ikusi ahal izan ziren, urte luzez ikusi gabeak Euskal Herrian, eta pelikula erdian eta bukaeran hainbat galdera erantzun zituen Passang Tembak.



Passang Temba, Saroben. AIURRI

“% 50 nepaldar, eta % 50 euskaldun sentitzen naiz”, esan zuen sarri Tembak, eta euskaldunak betirako bere bihotzean eramango dituela. Euskarazko ‘oso ondo’ eta ‘eskerrik asko’ hitzak esatera ausartu zen, bertaratutakoek hainbat galdera ingelesez erantzun ostean. Cheppal sherpa kidea alboan zuen Tembak, eta lan bikaina egin zuen Tembaren erantzunak errazteko lanean. Ekitaldiak oihartzun handia izan zuen sare sozialetan, batez ere herritarrek Tembari eskaini zioten minutu luzeko txalo zaparrada luzea, agurtu aurretik. Nepaldarrak jende guztia agurtu zuen bostekoa emanda, Sarobe arte eszenikoaren gunetik atera aurretik.

60 lagun Baghiratiko emanaldian

Asteazkenean Passang Temba sherpa ezaguna, eta ostegunean Mikel Saiz de Urabain. Ordiziako mendizaleak iaz Indiako Baghirati III mendian eskalatutako bidearen proiektzioa eskaini zuen. Garhwal eskualdean dago 6.654 metroko mendi hori, eta Mikel eta bere hiru lagun ehunka metroko horma bertikalean egon ziren zintzilik luze, azken hatsean bidea osatu eta gailurra igotzeko. Saiz de Urabainek dozena galdera inguru erantzun zituen pelikula bukaeran, solasaldi interesgarria sortuz.

Bigarren ekitaldia bukatuta, hirugarrenari begira jarri da Zanpatuz dagoeneko, lehen bi jardunaldietako arrakasta errepikatzeke asmoz. Hori hurrengo urteko udazkenean izango da, eta lehenago etorriko da Adarramendiko gaueko irteera, Gabonen bezperan, eta ilargi betearen lagun.

176 LAGUN BERTARATU ZIREN NEPALDARRAREN AZALPENAK ENTZUTERA

KOMUNITATEA

MATX TOKIKOMEK SUSTATURIKO EGITASMO DIGITALA

Zozketa erraldoia



MATX

Abian da kirolarien Matx sare soziala! Eta zer hobe zozketa erraldoi batekin hastea baino! Hala, abenduaren 8a baino lehen Matx.eus-en erregistratzen den oro opari-sorta baten zozketan sartuko da.

Matx sare sozialean edukiak izango dira proiektuaren indargune nagusia. Hori horrela, kirolaren bestelako ikuspegi bat erakusteko ikus-entzunezko ganberroak ekoiztearen aldeko apustua egingo dute. “Galdu edo irabazi, kirolaren alde dibertigarria erakutsiko dugu, taldeen arteko erronkak bultzatuko ditugu, desafioak sortu, elkarrekin barre egin. Eta, horretarako, kirol ekitaldietan egongo gara, lasterketetan...”, adierazi du Aratz Losadak, Matx-eko eduki-arduradunak. “Eta, horrekin batera, lurraldeko klubekin hartu-eman zuzena

izan nahi dugu. Denbora daramagu taldeen arteko desafioak grabatzen, eta klubuen eta kirolarien partetik jaso dugun erantzuna ederra izaten ari da”.

“Kirolarien, taldeen eta kirolzaleen komunitatea josi nahi dugu”, gaineratu du Maria Balzategik, proiektuko komunitate-arduradunak.

Erregistratu eta irabazi

Matx.eus-en izena ematea oso erraza da: Matx.eus webgunera jo, Sortu kontua botoiari eman eta bertan eskatzen diren datuak betez, sistemak automatikoki gomendatzen ditu zure interesekoak izan daitezkeen erabiltzaileak eta gaiak. Opari-sorta eder bat zozketatuko da: Euskaltel Euskadiren maillot bat, Eusko Label Winter Series txapelketako jaialdi baterako bi sarrera eta Forum Sport-en 300 euroko erosketa-bonu bat.

AZAROAK 23 LARUNBATA | 16:30ETIK AURRERA GALARRETA JAI ALAI HERNANI

<p>1. PARTIDA</p> <p>JABALERA • GOIKOETXEA VI vs SUSPERREGI • APEZETXEA</p>	<p>2. PARTIDA 19:15</p> <p>ANSA II • JUANENEA vs EZKURRA II • AZPIROZ</p>	<p>3. PARTIDA 21:15</p> <p>ALDABE • AIESTARAN VI vs GURRUTXAGA • MARTIRENA</p>
--	--	---

Pozarren, garaipena lortuta

Gipuzkoako kadete emakumezkoen txapelketa 2.Fasean sartu da eta aurreko asteburuan Urnieta Iñaki Mecanizados taldeak garaipen polita eskuratu zuen, etxeko zaletuen aurrean. Otezuri Pulpo taldea izan zuten aurkari (34-24). Asteburu honetan Larraioz taldearen kantxan ariko dira.



UKE



Alex Txikon, Basteron. AIURRI

Mendi Astea, Euskalduna taldearen eskutik

Zirraraz beteriko kontakizuna egin zuen Alex Txikon, Mendi Asteko lehen ekitaldian

Xabier Lasa ANDOAIN

Manasluko mendi-espeditioan, heriotza gertu antzeman zuen Alex Txikon goimendizaleak. Horren kontakizuna egin zuen astelehen iluntzean, dozenaka lagunuen aurrean, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan. Komunikatzaile bikaina da Txikon, eta epikaz beteriko kontakizuna egin zuen. Hasiera indartsua izan zuen, beraz, Euskalduna Mendigoizale Taldeak antolatutako Mendi Asteak.

Ostegun honetan, berriz, Passang Temba sherpa ezaguna Andoainera hurbilduko da.

Datozen egunetako ekitaldiak

- Azaroak 21, osteguna: euskal herritarren lehenengo igoera Everestera. Passang Temba sherparekin solasaldia. Basteroko ekitaldi aretoa, 19:00.
- Azaroak 24, igandea: Mendi irteera eta 75. urteurreneko bazkaria.
- Azaroak 27, asteazkena: "El circo de Lescun" liburuen aurkezpen-ekitaldia, Juan Mari Ansaren eskutik. Euskalduna MTren egoitza, 19:00.
- Azaroak 29, ostirala: "Euskalduna M.T.ren espeditzioa Tiroloren", Xabier Huitziren eskutik. Euskalduna MTren egoitza, 19:00.



UKE



AIURRI

Liderraren aurka, asteburuan

Gipuzkoako gizonezkoen 2. lurraldeko txapelketan, A multzoan jokatzen ari da Urnieta Guria Jatetxea taldea. Aurreko asteburuan Decotextil taldearen bisitaldia izan zuten Urnietan, eta ezin izan zuten garaipena eskuratu (28-34). Zazpi jardunaldi igarota, urnietarrek bi garaipen eta berdinketa bat lortu dute. Asteburuan, Baiona Autoak Pulpo liderraren etxean ariko dira.

Seigarren garaipena lortu dute

Gizonezkoen Gorengo mailan lehen postua indartzen ari da Euskalduna, aurreko asteburuan Amara Berriren zelaietan 3-4 irabazi ostean. Bederatzi partidatan sei garaipen eta bi berdinketa lortu dituzte. Gauzak horrela, bi puntuko aldea ateratzen diote bigarren sailkatuari. Datorren igandean Orioko taldearen aurka ariko dira Ubitarten, eguerdiko 12:00tan hasita.



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

TAILERRA

ANDOAIN Txapa tailerra
Azaroaren 25eko ekitaldia.
17:00, Ludoteka.
Azaroak 21, osteguna.

Giltzatak eta txapak egiteko.
17:30, Gazte Lokala.
Azaroak 23, larunbata.

SOLASALDIA

URNIETA "Emakumeak kirolean"
Txaro Tomasena.
18:00, Sarobe.
Azaroak 21, osteguna.

ANTZERKIA

ANDOAIN "Ametsen mundua"
Patata Tropikala taldearen eskutik.
17:00, Ludoteka.
Azaroak 22, ostirala.

ANDOAIN "Ztandap"
Mirari Martiarenak eta Idoia
Torregaraiak generoa hartuko dute
umoregai, beturreko moreak
jantzita.
19:30, Bastero Kulturgunea.
Azaroak 23, larunbata



Azelain Ballet taldeko kideak, artxiboko irudian. AIURRI

ANDOAIN Elkartasunezko jaialdia
Andoain Solidario ekimenak antolatuta eta herriko gizarte nahiz kultur
mailako eragile askoren partaidetzarekin.
12:00, Bastero Kulturgunea. Azaroak 24, igandea. Laguntza: 5 euro.

TAILERRA

ANDOAIN Ikastaroa
Autodefentsa feminista.
09:30-14:30, Allurralde.
Azaroak 23, larunbata.

URNIETA Jardunaldia
Urnietako Emakumeak ekimenak
antolatuta, ikus-entzunezkoa,
bertsoak... adierazpena eta
egitaraua, 4. orrialdean.
17:00, hainbat tokitan.
Azaroak 23, larunbata.


ANTZERKIA

URNIETA "Mira hadi"
Abaitua argazkilararen historia.
19:00, Sarobe.
Azaroak 24, igandea.

ELKARRETARATZEA

ANDOAIN Bilkura
Mugimendu feministaren ekimena.
18:30, Goikoplaza.
Azaroak 25, astelehena.

ZINEMA




ANDOAIN

BASTERO

Gladiator II
Azaroak 22,
ostirala. 19:30.
Azaroak 24,
igandea. 19:30.
Azaroak 25,
astelehena. 17:00,
19:30.

Zak y Wowo
Azaroak 24,
igandea. 17:00.

**Azken
erromantikoak**
Azaroak 30,
larunbata. 19:30.
Abenduak 1,
igandea. 19:30.
Abenduak 2, astel.
17:00, 19:30.



SINOPSIS

Gladiator II
Zuzendaria: Ridley Scott. **Aktoreak:** Paul Mescal, Pedro Pascal, Connie Nielsen, Denzel Washington,... **Herrialdea:** AEB (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Abenturak. **Iraupena:** 147 m.

"Gurea erabil dezakezu" kanpaina Urnietara iritsi da

"Altxa burua" taldeak "Gurea erabil dezakezu" kanpaina abiatu du herrian, Urnietako Udalarekin elkarlanean, haurrei lehen smartphonea emateko adina atzeratzeko helburuz, bai eta mugikorrik gabeko nerabezaroa sustatzeko xedez ere: "Telefono mugikorren gehiegizko erabilera goiztiarra eta horrek sortzen duen mendekotasuna gurasoen kezka iturri izaten ari da". Bada, kanpainaren bitartez, joera hori eten nahi du taldeak, "nerabeek espazio publikoa berreskuratu, jolastu eta hitz egin

dezaten". Urtebeteko iraupena izango du kanpainak. Ekimenean parte hartzen duten establezimenduek eta zerbitzu publikoek pegatina berde bat izango dute: "Gurea erabil dezakezu" izenekoa. Nahi izanez gero, bertako telefonoak erabiltzeko aukera emango zaio horrela behar duen orori, azaldu dutenez: "Aurrerantzean, nerabeak pegatina hori duen edozein espaziotan sartu ahal izango dira ustekabeko edo larrialdiren bat dutenean. Horrela, ez da beharrezkoa izango telefono mugikorra izatea gurasoekin harremanetan jartzeko". Kanpainarekin bat egin nahi duenak badu oraindik aukera. Telefono zenbakia: 943 034 339.

ZOKKETA

Aiurriko
harpidedun
izateak saria
dakar



ANTZERKIA

Parte
hartzeko
azken
egunak!

**Urnietako harpidedunen artean
2 sarrera zozkatuko ditugu.**

Parte hartzeko modua:
Idatzi "Miñan", zure izen-abizenak eta bidali:
* **Whatsappa:** 619 163 537
* **E-posta:** urnieta@aiurri.eus

MIÑAN
ARTEDRAMA

**Abenduak 3, asteartea.
19:00. Sarobe, Urnieta.**

«Ibrahimaren historia ezin hobeki laburbiltzen du
migratzaileen odisea». Amets Arzallus

Ibrahima Balde Ginean jaio zen; baina, egun batean, amaren deiak etxea uztera behartu zuen, anaia txikiaren bila Europara joateko. Basamortua zeharkatu zuen, eta polizia, bahitzaile, mugalari eta abarrekin gurutzatu zuen zeharkaldian. Afrikatik Europarako ibilbidean minak, egarriak eta goseak sorturiko sufrimendua ezagutu zuen. Miñan (anaiatxoa) Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da, Amets Arzallusek lehen pertsonan kontatua eta Artedramak antzerkira egokitua. Ikuskizuna euskaraz.

Santa Zezilia eguneko kontzertua, larunbat honetan

Urtero legez, Gora Kaletxiki Bandak kontzertu berezia prestatu du. 19:00tan hasiko da Santa Krutz elizan

Erredakzioa ANDOAIN

Azaroaren 22a musikarien eguna da eta efemeride hori baliatuko du Gora Kaletxiki Bandak emanaldi berezia egiteko. Errepertorio zabala prestatzen ari dira, egunotan.

Batetik, artista ezagunen kantuak joko dituzte: White, Anka, Thibault, Strauss, Sigman Gray... Bestetik, Euskal Herriko doinu herrikoiak nahiz Joxe Mari Oiartzabal zuzendariak berak sorturikoak entzungai izango dira.

Kantu horien artean da Joxe Mari Oiartzabalek konposatutako "Santa Zezilia" izenekoa. Hitzak, Joxe Ramon Berrondo Aiartzarenak dira. Iazko emanaldian, esaterako, garai horretantxe hil berria zen Asier Barrio Bastero Kulturguneko langileari eskaini zioten, urtetan bere lanpostuan eskuzabal aritzeagatik.

Joxe Ramon Berrondo Aiartzak aurkeztuko du emanaldia. Bandaren zuzendaria izango da berriz, Joxe Mari Oiartzabal Beloki.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN Ekiñe Azaroaren 18an 15 urte bete zituen. Zorionak Ekiñe zure 15garren urtebetetzean. Etxekoak.



ANDOAIN Izar Urtetxo bat zuk Izar, kika berriekin duzu irrifar. Milaka muxu ditzazu har, amatxoren lagunak, bederatzia atso zahar. Ondo pasa!



ANDOAIN Ilargi Brosa Iazko Ilargi berriekin batera etorri zinen mundura. Ordutik gure bihotzak argitu dituzue kanpotik barrura. Etxekoak



ATE IREKIAK

Unibertsitate Graduak

INGENIARITZA

- Arrasate AZAROAK 30 ABENDUAK 14
- Galarreta EKO Campus ABENDUAK 14 (Orona Ideo)
- Bilbao AS Fabrik ABENDUAK 14
- Goierri-Ordizia ABENDUAK 14

ENPRESA KUDEAKETA

- Bilbao AS Fabrik AZAROAK 16
- Oñati ABENDUAK 14
- Bidasoa-Irun ABENDUAK 14

EKINTZAILETZA

- Bilbao BBF ABENDUAK 12
- Bidasoa-Irun ABENDUAK 12
- Oñati ABENDUAK 12

HEZKUNTZA

- Eskoriatza AZAROAK 23
- Bilbao AS Fabrik AZAROAK 23

KOMUNIKAZIOA

- Aretxabaleta AZAROAK 23

HUMANITATEAK

- Bilbao AS Fabrik AZAROAK 23

GASTRONOMIA

Basque Culinary Center

- Donostia AZAROAK 30

Eman izena!

www.mondragon.edu/ate-irekiak-graduak



Learning from reality

"Indarkeria matxistaren aurka borrokatu"

Ekitaldia antolatu du eskualdeko Itaiak, datorren azaroaren 25erako. Urnietako Zaldundegi plazan izango da hitzordua, astelehenean bertan. Iluntzeko 19:30ean egingo dute bilkura, "Indarkeria matxistaren aurka borrokatu" lelopean. Deialdiak bat egiten du emakumeen antolakunde sozialistak Euskal Herri osoan deitutako hitzordeekin.

OHARRA: ONTZA

"Ontza elkarteko Gabonetako loteria erosi nahi duzuenok, Bastero Loteriak administrazioetik pasa zaitezke erostera. 20 euroko dezimoetan egingo da salmenta".

OHARRA: ALTUNA

"Sukaldeko laguntzaile bila gabiltza, sagardotegi denboraldian Altunan (Urnietan) lan egiteko. 2025eko Urtarrilaren 22tik Maiatzak 11ra. Informazioa: 650 074 001".



"Mira hadi" antzezilana, igande honetan, Saroben. LORALDIA

Azaroaren 25ari loturiko ekitaldi-sorta, Urnietan

Azaroaren 25ean Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna oroituko dute Urnietan. Aurten, Udalaren esanetan, "arreta jarri nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria matxistaren diskurtso ukatzaileetan, ultraeskuinak aurrera egiteko Europako eta munduko testuinguru batek

bultzatuta jaiotzen baitira". Egun horren harira, hainbat ekintza iragarri dituzte Urnietan. Honako hauek:

- Azaroak 21, osteguna. Solasaldia Txaro Tomasenarekin: "Emakumeak kirolean". 18:00, Sarobe.
- Azaroak 24, igandea. Antzerkia: "Mira hadi", 19:00, Sarobe.
- Azaroak 25, astelehena. Elkarretaratzea. 12:00, San Juan plaza; "Haizeak darama" jolas. 17:30, Gazteleku.



Junkal Guerrero pozarren agertu zen Bastero Kulturgunean. AIURRI



Udal Musika Eskolako abesbatza gaztea Myriam Ulanga eta Katrin Iturralderekin batera. AIURRI

Pozik eta hunkituta, etxekoen abaroan

Junkal Guerrero Andoaingo sortzaileak herrikideen txaloak jaso zituen Bastero Kulturgunean antolatu zuten emanaldi berezian. Madrilgo Alaia Ensemble abesbatza eta Andoaingo Udal Musika Eskolako gazteen abesbatza aritu ziren kantuan

Xabier Lasa ANDOAIN

"Opari polita, hunkigarria, izango da niretzat", Basteroko emanaldia emozioz itxaroten zuela

aitortu zion Junkal Guerrerok Aiurriri. Eta halaxe izan zen emanaldia gaueko protagonis-tarentzat: hunkigarria.

Oholtza gainean, emanaldia amaituta, hitza hartu zuen bere poza agertzeko. Alde batetik, halako musika emanaldia bere

jaioterrian egiteko aukera izateagatik. Izan ere, musikagintzan egin duen ibilbide oparoa sorteriari zor diola adierazi izan du maiz. Beste aldetik, herriko gazteak emanaldian parte hartzen aritu izanagatik. Izan ere, Madrilgo Alaia Ensemble abesbatza eta Andoaingo Udal Musika Eskolako gazteen abesbatza aritu ziren kantuan. Eta, uneren batean, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko hainbat kide batu zitzaizkien. Eskerrak eman zizkien denei, "gaurko aitortza ekitaldia betiko gogoan gordeko dut, eta musikagintzan orain arte egindako ibilbidearekin

jarraitzeko kemena eman didazue".

Aiurri.eus webgunean hainbat bideo daude ikusgai: tartean, Junkal Guerreroren hitzartzea eta berak sortutako zenbait abesti.

Guerrero, Ugalde eta Sarasola sortzaileen piezak

Junkal Guerreroren abestiak ez ezik, Eva Ugalde eta Xabier Sarasola konposatzaileen piezak interpretatu zituzten bi abesbatzek. Tarteka, gainera, Ugaldek eta Sarasolak Basteroko emanaldian pianoa joz parte hartu zuten.

SARI BANAKETA EKITALDIA

Eguna: **Azaroak 27, asteazkena**

Ordua: **Basteroko ateak 18:50ean itxiko dira eta ekitaldia 19:00etan hasiko da.**

Lekua: **Andoain, Bastero Kulturgunea.**

Aurkezleak: **Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai.**

Musika: **Esanezin**

KAZETARITZA SARIRAKO FINALISTAK

- **Nerabeak eta sexu-heziketa: pornoa ote da arazoa?** June Fernandez en erreportajea, Argia aldizkarian argitaratutakoa
- **Juana.** Jon Artano Izetak idatzitako liburua
- **Feminizketak.** Berria egunkarian argitaratutako erreportaje seriea
- **Bada.** Gazteon hedabidea.

KOMUNIKAZIO SARIRAKO FINALISTAK:

- **Ikusgela.** Euskal Wikilarien Kultura Elkartearen proiektua
- **Ezer ez eta festa podcasta.** Berria
- **Ez hain ondo bideopodcasta.** EITB Podkast
- **Flop Kultura podcasta.** Euskalerrria Irratia

Kazetaritza eta Komunikazio sariak ezagutzera ematearekin batera, **OHOREZKO MUGARRIA** emango zaio **Ana Galarraga Aiestaran** kazetariari.



web orria prentsa herriak kazetaritza
telebista bideoa komunikazioa youtuberrak blogak
alorreak digitala errealitate sarrak
txaloa Internet publikitatea erreportajea

RAKS 2024

Bizhitza konektatzen

36. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

ANDOAINGO UDALA
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURAREN BERRESKUNTZA POLITIKA SAIA